

BILBO 38 – 5 BRT

Larunbat honetako aurkaria gogorra izan zen, zelaia bezain gogorra. BRTk hiriburu bizkaitarreko jokalariak izan zituen aurrean, Universidad Bilbao Rugby taldeko jokalariak: talde oreaktu eta lehiakorra, ondo antolatutako defentsarekin eta eraso desorekatzaileekin. Gauzak horrela, BRTk entsegu bakarrarekin konformatu behar izan zuen eta sei ekarri zakuan: 38-5 izan zen partidako azken emaitza.

Partidak bi erdi arras ezberdin izan zituen. Lehendabiziko zatian zuri-gorrien jokoa eta posesioa izan ziren nagusi. Aurrelariekin lan pixka bat egin eta eskuekin trebea zen lerro indartsu bati baloia irekiz laster izan ziren gai baztandarren horma pitzatu eta lehendabiziko entsegua egiteko. Hortik aitzinera partida are gehiago hautsi zen eta jokaldi pertsonalen konbinazioak, defentsako hutsegiteek (baztandarren birkokatzean) eta bilbotarren ostiko finek 32-0eko emaitza ekarri zuten hasierako 40 minutuen akabailara ailegatzerako, mingaina kanpoan.

Bigarren zatia: bertze partida bat. BRT lezioak ikasita atera zen berdegunera, eta defentsa harresi gaindiezin bihurtzen hasi zen, jokalari menditarrak espazioan ongi banatuz eta defentsa gogorra aplikatzu. Bilbo baloiak galtzen eta *kolpeak* egiten hasi eta posesioa taldez aldatzen hasi zen, urdinei konfiantza emanez. Aitor Adinen ostikadak atzelari bilbotarren bizkarra hartzen hasi ziren eta horrela, bigarren zatiaren erdian, baloia hegaleraz zabaldu ondoren konbinazio ikusgarri batean, BRTren entsegu bakarra iritsi zen (Beñat Arregi). Pizgarri handia izan bazeen ere, bakailaoa partidaren hasieran banatua izana zen, eta, hori gutxi balitz, BRTren azken plakaketa-akats batek, Bilbok ongi baliatutakoa, 38-5eko azken emaitzara eraman zuen lehia.

Entrenatzen jarraitza eta lesionatuak pixkanaka errekuperatza (ia dozena bat jokalari) tokatzen da. Atseden jardunali baten ondoren, BRTk Durango RT izanen du aitzinean, talde gogorra honakoa ere, baina aitzinean izanen du pilak kargatutako BRT, sentsazio onak berreskuratzeko gogotsu, garaipenak taularen goitiko aldean mantentzea ahalbideratzen ahal diolarik.

		Taldea	J	G	E	P	TF	TC	DT	EF	EC	BO	BD	PUNTOS
1		Betsaide Elorrio RT	5	4	0	1	219	84	135	35	11	4	1	21
2		Envases R.C. Rioja	5	4	0	1	151	88	63	21	13	2	1	19
3		Getxo Etorkizuna	5	4	0	1	132	75	57	20	11	2	0	18
4		Universitario Bilbao Rugby	5	3	0	2	139	79	60	22	11	3	2	17
5		BRT Menditarrak	5	3	0	2	130	77	53	20	10	3	1	16
6		Kanpanzar Arrasate RT	5	3	0	2	127	135	-8	16	18	2	0	14
7		Durango RT	5	2	0	3	156	134	22	23	22	2	0	10
8		Atlético San Sebastián	5	1	0	4	94	126	-32	12	18	2	2	8
9		Eibar RT	5	1	0	4	52	278	-226	9	42	1	0	5

El rival de este sábado era duro como duro era el césped en el que nos tocó jugar. El BRT tuvo en frente a los jugadores de la capital vizcaína, jugadores del Universitario Bilbao Rugby: un equipo muy completo y competitivo, con una defensa bien ordenada y un ataque desequilibrante. Así las cosas, el BRT tuvo que conformarse con un solo ensayo mientras que le tocó encajar seis: 38-5 fue el resultado final del partido.

El encuentro se desarrolló en dos mitades muy diferentes. La primera parte se definió por un claro dominio del juego y de la posesión de los rojiblancos. Trabajar un poco con la delantera y abrir a una poderosa línea, veloz y hábil con las manos, que no tardó en resquebrajar el muro bantzandarra y anotar el primer ensayo. A partir de ahí el encuentro se rompió aún más y la combinación de jugadas personales, fallos defensivos en la recolocación bantzandarra y el acierto de los pateadores bilbaínos culminó con un 32-0 al llegar, con la lengua fuera, a los primeros 40 minutos de juego.

Segunda parte: otro partido. El BRT salió al césped con la lección aprendida y la defensa empezó a volverse un muro infranqueable, con los jugadores menditarras distribuyéndose bien por el espacio y aplicando una dura defensa. El Bilbao empezó a perder balones y a cometer *golpes* al tiempo que la posesión comenzó a cambiar de bando, dando así confianza a los azules. Las patadas del apertura Aitor Adin empezaron a calar y coger la espalda de los zagueros bilbaínos y así, a mitad de la segunda parte, tras abrir el balón hasta el ala en una combinación muy vistosa, llegó el único ensayo del BRT (Beñat Arregi). Aunque supuso un balón de oxígeno moral, el bacalao ya se había repartido en la primera mitad del partido, y, por si fuera poco, un último error defensivo en el placaje, que el Bilbao supo aprovechar bien, zanjó el encuentro con un 38-5.

Toca seguir entrenando e ir recuperando poco a poco los lesionados (casi una docena de jugadores). Tras una jornada de descanso, el BRT tendrá en frente a Durango RT, otro equipo duro que, sin embargo, peleará con un BRT en casa y con las pilas puestas, ya que la victoria puede permitirle mantenerse en la parte alta del tablero y recuperar las buenas sensaciones.

		Taldea	J	G	E	P	TF	TC	DT	EF	EC	BO	BD	PUNTOS
1		Betsaide Elorrio RT	5	4	0	1	219	84	135	35	11	4	1	21
2		Envases R.C. Rioja	5	4	0	1	151	88	63	21	13	2	1	19
3		Getxo Etorkizuna	5	4	0	1	132	75	57	20	11	2	0	18
4		Universitario Bilbao Rugby	5	3	0	2	139	79	60	22	11	3	2	17
5		BRT Menditarrak	5	3	0	2	130	77	53	20	10	3	1	16
6		Kanpanzar Arrasate RT	5	3	0	2	127	135	-8	16	18	2	0	14
7		Durango RT	5	2	0	3	156	134	22	23	22	2	0	10
8		Atlético San Sebastián	5	1	0	4	94	126	-32	12	18	2	2	8
9		Eibar RT	5	1	0	4	52	278	-226	9	42	1	0	5